

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Euskadi, Katalunia, Galizia eta Balearrekin bat egin du Nafarroak, hizkuntza-politikari dagokionez

Gaurko saioan onartu du 2007ko martxoan sinatutako Protokoloarekin bat egiteko erabakia

Asteazkena, 2017.eko martxoak 29

Nafarroako Gobernuak gaurko saioan hartu du [Lankidetzako Protokolo orokorrarekin](#) bat egitea onartzen duen erabakia; 2007ko martxoaren 16an sinatu zuten hizkuntza-politikari dagokion protokolo hori Eusko Jurlaritzak, Kataluniako Generalitatek, Galiziako Xuntak eta Balearretako Gobernuek. Erabaki horren arabera, baimena ematen zaio Euskarabidea Euskararen Nafarroako Institutuko zuzendari kudeatzaileari, protokoloa sinatzeko.

2016ko maiatzaren 14an, hainbat komunitatetako hizkuntza-politiken arduradun nagusiak elkartu ziren Valentzian, mintegi batean; han, Nafarroako Gobernuko ordezkariak azaldu zuten protokolo horrekin bat egin nahi zutela, esparru horretan indarrak batzeko interesa zutela-eta. Protokoloaren Jarraipen Batzordeko kideek, dagozkien gobernuen ordezkari gisa, aho batez onartu zuten Nafarroako Gobernuaren atxikitze-eskabidea; lehenbailehen izendatuko ditu Nafarroak bere ordezkariak, eta eskubide osoko kide gisa sartuko dira 2007an sinatutako protokoloaren harira sortutako Jarraipen Batzordean, egokitzen zaizkien eginkizun, eskubide eta betebeharrekin.

Atxikitzeko protokolo hori sinatzen denetik 2017ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, eta tazituki luzatuko da urtez urte.

Protokoloa sinatzen duten aldeek hizkuntza-politiken arloan elkarrekiko lankidetzaz garatzeko esparru orokor bat eta metodologia bat finkatzeko nahia adierazten dute. Horrela, komunikazioaren arloan, erakunde sinatzaileek elkartrukatu egingo dute bilakaera soziolinguistikoaren jarraipenerako azterlanei eta ikerketa-lanei buruzko informazioa, beren argitalpen elektronikoaren zabalkundea, hizkuntza-eskubideen inguruan emandako urratsak, hizkuntza-planak ezartzeko esperientziak, berriazko hizkuntza-planak, eta programen jarraipenari eta ebaluazioari dagozkien esperientziak edo metodologiak.

Terminologiaren esparruan, lanerako metodologiei eta prozesuei buruzko informazioa, terminologia normalizatzeko irizpideak, terminologiak hedatzeko eta ezartzeko estrategiak eta ezarpen-mailaren jarraipena egiteko metodoak partekatuko dituzte.

Neurri eta ekintza arautzaileak

Halaber, Estatuko Administrazioaren eta Europar Batasunaren esparruan

hizkuntza ofizialei ematen zaien babesari eta erabilerari dagokionez, sinatzaileek Estatuak eta Europar Batasunak neurri eta ekintza arautzaileak hartzea sustatuko dute, eta erakunde horietan gaztelera ez den beste hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bultzatuko dute, hala nola Kongresuan eta Senatuak, Justizia Administrazioan eta Estatuko sozietateetan; gainera, Estatuko erakundeek hizkuntza horiek normalizatzeko politika aktiboak bultzatzera bideratutako neurriak sustatuko dituzte.

Esparru sozioekonomikoak, argitalpen eta azterlan ofizialen aleak elkartrukatuko dituzte, baita legeak, erregelamenduak eta xedapen arautzaileak ere.

Jasotzen diren beste alderdi edo esparru batzuk dira irakaskuntza, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, hizkuntzaren erabilera soziala eta nazioarteko zabalkundea.

Azkenik, urtero ekintza plan bat egitea jotzen da protokoloa zehazteko funtsezko tresnatzat.